araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Larrialdietarako Funtsak 23.000 euro bideratuko ditu 130 pertsona Ruandako beren etxeetara itzuli ahal izan daitezen

Euri-sasoiaren hasierak kalte larriak eragin ditu Nyagatare barrutiko etxebizitzetan

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 26a. Arabako Larrialdietarako Funtsak (ALF), Arabako Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak sustatutakoak, 23.000 euroko laguntza onartu du Ruandako ipar-ekialdeko Nyagatare barrutian izandako eurite handiek kaltetutako pertsonei laguntzeko. Ekarpen horri esker, oinarrizko etxeko tresnak erosi ahal izango dira, kaltetutako 130 pertsonak beren etxeetara itzuli ahal izan daitezen.

Joan den irailaren 21ean, kaltetutako familiek beren etxebizitzak utzi behar izan zituzten, haizeteek eraikinen estalkiak altxatu eta euriteek etxeko tresna asko kaltetu ondoren. Horietako asko erabilezin geratu ziren.

Gaur egun, kaltetutako pertsonak beste familia batzuen etxean bizi dira, edo eliza batean babestu dira. Arabako Larrialdietarako Funtsaren laguntza koltxoiak, mantak, esterak eta oinarrizko etxeko beste tresna batzuk erosteko erabiliko da. Horri esker, familiek beren etxeetara itzultzeko baldintza egokiak berreskuratu ahal izango dituzte. Esku-hartze hori tokiko agintarien ekarpenekin osatuko da, elikagaiak emango baitituzte eta kaltetutako etxebizitzak berreraikitzen lagunduko baitute.

Prezipitazio handiak El Niño fenomenoarekin lotuta daude. Izan ere, milaka kilometrora sortzen den arren, munduko hainbat lekutako eredu meteorologikoak aldatu ditzake. Ruandan, fenomeno hori ohi baino euri-sasoi gogorragoekin lotzen da, eta horrek uholdeak eta lur-jausiak izateko arriskua handitzen du.

Euri-jasa handiak eta klima-aldaketaren ondorioak Ruandako ekonomiaren erronka nagusietako bat dira, eta batez ere errenta baxuko herrialde horretan duen inpaktuagatik, bertako garapena, neurri handi batean, bizirauteko nekazaritzaren mende baitago.

ARDE/KUBAHO elkarteak kudeatuko du jarduketa, Medicus Mundi Arabak eskatuta. Bi erakundeek lankidetza-ibilbide luzea dute eskualdean garapenerako lankidetza-proiektuak gauzatzen.

Arabako Foru Aldundiaren finantzaketa duen ekimen hau EAJ/PNVren eta PSEren gobernu taldearen eta Elkarrekin Araba-Podemos batzarkide taldearen arteko aurrekontu akordioaren barruan kokatzen da.

Raquel Ugarriza Mendibil – rugarriza@araba.eus - 945 18 19 02 – prentsa.araba.eus